



Karakol aiek jangenun madalenetan... sokamuturra atera bitartean.

# URRUNDIK

ZUBIALDE'tar Joxe

Arjentinatik etorri zaizkigu bertso auk. Aspaldiko urtetan an bizi dan errenderiar bat degu egillea. Izen ordeko batekin izenpetu arren, uste degu «guerra aurreko» erriko-semeak, konturatuko dirala nor dan.

Obe bearrez iduritu zaigu, bertsoak artu ditugun bezelaxe argitaratzea, gure errikoi izkuntza ain errex ta goxoki erabiltzen bai du...

## NERE ERRIKO GORAMENAK

*Ume asko bezela  
Asinitzen eskolan  
Mojetan  
Goratzen naiz nola  
Ateratzen giñen pilan  
Eta Antoni atzetikan  
Zerbait ekartzenzun  
Eskutan.  
Umen bat zikinduzen  
Galtzetan*

Denbo aitako  
Umian galtzak  
Bi zulu zaukan  
Aurrekoa  
Barrak egiteko  
Eta atzekoa  
«Bakalloa»  
Erakusteko

Pabrika aundiko paretan  
Ikastengenun pelotan  
Porteriko Josepa Ramona  
Agertu bitartian  
Gure atzetik kesketan

Gero azigiñen pubolian  
Jostatzen kalia  
Gure pellota lertu arte  
Angel o Teodoro  
Karro pian

Goiko kaleko maldan  
Saiatzen genun gure  
«Goitibera»  
Nola etzen kale berdiña  
Gure ibillera bukatzen zun  
Zilipurdika

Kale gustiko biurriak  
Zuten bere nagusia  
Zito, Madalen kalean  
Iñaxio Mateo, Viterin  
Periko «Tximista»  
Santa Klaran  
Eta Kartutxo anaiak  
Etxeberritan  
Zartzeko bere kaletan  
Beartzen bere baimena  
Bestela aterakoziñen  
Ostikoka eta arriketa

Noizian beñ «Xamakorrekan»  
Egitentzen garbiketa  
Eta an alkertzezien  
Mutil mordoska aingiretan

Gau bat «LAGUN ARTEA»'n  
Erabakigenun  
Karakolak jan Madalenetan  
Ta jungiñen Audelera

Aiek biltzera  
Eta auntzian Arragun  
Poxpuluak eta kandelak  
Erosigenun

Lata batzuek beteta  
Nor bait ezantzun  
Guazen Oiartzunea  
Akeita artzera  
Nola berandu zan  
Etorrigiñen etxera

Jaungoikoari eskerrak  
Es giñela juan

Urrungo egunian jakingenuan  
Nola zalaparta aundia  
Oiartzunen izanduzela  
Uste zuten Eliza  
Erretzea guazela

Erri gustia kalia  
Bere makillakin, aiskorak  
Eta atxurak  
Gu agertu zai, apurtzeko  
Ezurak

Karakol aiek  
Jangenun Madalenetan  
Goizeko bostetan  
Zumardi aundian  
Dantza bukatuta  
Eta sokamuturra  
Atera bitartean

Abek estie kontuak  
Eta istoriak  
Danak die egiak  
Errenderin bizikodie  
Asko  
Gauz abek pasiak

**ERRENDERIA**'ri  
Zer dezu Errenderia  
Kanpotik begiratuta  
Erri itzusia  
Geinetan lañopian  
Ta errederiarrantzat  
Orren maitagarria?